

Eskola-bideak: ohitura eta ingurune osasungarrien bide berdea



“Oinez ibiltzea umeek egin nahi duten lehenengo gauza eta adinekoek galdu nahi duten azken gauza da. Oinez ibiltzeko, ez da gimnasia joan behar. Horrez gain, ez du kutsatzen, baliabide natural gutxi kontsumitzen ditu eta oso eraginkorra da. Arnasa hartzea bezain naturala da oinez ibiltzea”.

John Butcher (1999), Oinezko Ibilerari buruzko I. Biltzarra.



**GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**

ESKOLARA, OINEZ EDO BIZIKLETAZ

Egunaren hasieran eskolara bidean ariketa egitea oso ohitura osasungarria da. Eskola-bideen ekimenak neska-mutilei eskaini nahi die ibilbide **seguru bezain atseginean** zehar eskolara **oinez, patinez edo bizikletaz** joateko aukera.




“

Eskola-bidetik, badugu oinez, bizikletaz, patinetz edo patinez seguru ibiltzerik. Badugu taldean joaterik, geure gauzei edo ikasgelan ikusi dugunari buruz hitz egiten eta hainbat gauza ezagutzen. Era berean, atsegina ere bada goizetan auzokoak agurtzea eta kaleko zuhaitzetan txoriek habiak egin dituztela edo zuhaitzak loretan daudela ikustea. Horrez gain, bazenekien ohitura hori gure osasunaren eta ingurumenaren mesederako dela? Oinez ibiltzea eta bizikletaz eta patinez mugitzea ona da, ariketa egiten dugulako eta bihotz-hodietako arazoak zein loditasuna prebenitzen ditugulako. Gainera, klima-aldaketari aurre egiten diogu, atmosferara CO₂ eta negutegi-efektuko beste gas batzuk isurtzen dituen autoan edo autobusean ez joatean.

”



Eskola-bideak ez dira berriak. 90eko hamarkadan, lehenengo eskola-bideak abian jarri ziren Ameriketako Estatu Batuetan edo Erresuma Batuan, **Safe Routes**, alegia. 

ESKOLA-BIDEEN XEDEAK

Autonomia

Eskolara taldean joatean, neska-mutilek euren autonomia, buru-estimua eta sozialitatea indartzen dituzte.

Osasungarriak

Egunero oinez edo bizikletaz ibiltzea, egunero ariketa fisikoa egiteko. Bizi-ohitura osasungarria.

Iraunkortasuna

Autoen erabilera murriztea, ikastetxera joateko, airearen kalitatea hobetzeko eta negutegi-efektua gutxitzeko.

Segurtasuna

Eskola-ibilbide seguruaren sarea sortzea, oinez, bizikletaz edo patinez joan-etorri iraunkorretarako ohiturak sortzeko.

... gero eta lagun gehiago bilduko ditugu!

ESKOLA BIDEA



NORK EGITEN DU ESKOLA BIDEAREN EGITASMOA POSIBLE?

Eskola-bideei esker neska-mutilek esparru publikoa berreskuratu eta erabili dezaten, erkidego osoaren laguntza, babesa eta koordinazioa beharko dira.



ESKOLA-BIDE BAKOITZA BAKARRA DA

Oso garrantzitsua da ikasleen adina, egin behar duten ibilbidea, ibilbidearen beraren arrisku-maila... kontuan hartzea eta auzoaren, herriaren edo hiriaren ezaugarrietara egokitutako irtenbidea bilatzea.



ESKOLA-BIDEA, URRATSEZ URRATS

01 Nork ekingo dio bideari?

Ikastetxeek, ikasleen familiek edota auzokoen elkarteek, udalarekin batera.

02 Zer bide daude aldeztuak?

Ikasleek gehien darabiltzaten eta lehendik dauden bideak ezagutzera izango da abiapuntua.

03 Lehentasuna: segurtasuna.

Ibilbideetako gune kritikoak zein diren zehaztea oso garrantzitsua da eskola-bide segurua bezain irisgarriak diseinatzeke orduan.

06 Eskola-bidea sendotu behar da.

Eskola-bide segurua inklusio eta kohesio sozialerako bide bizia da. Gainera, jendea elkarrekin bizi da bertan, eta "herria edo auzoa" egiten da.

05 Bide berriak joango gara eskolara!

Geure eskola-bidea abian jarri arren, ez dugu amaitu. Emaitzak egiaztatu behar ditugu, hobekuntzak ezarri ahal izateko.

04 Gure bidea zehaztuko dugu!


Oso garrantzitsua da inplikaturako eragile guztiak antolatzea eta taldean lan egitea, proiektua bera jakitera emateko eta merkatarien zein auzokideen partaidetza eta lankidetzak lortzeko, benetako protagonistak nor diren ahaztu gabe: ikasleak eurak.



Badakizu zer den STARS proiektua?

STARS proiektua (Ikastetxeetarako Joan-etorri Iraunkorren Egiaztapena eta Aitortza) Europa mailako proiektua da, eta eskoletarako joan-etorriak oinez edo bizikletaz egitea dauka helburu.

Proiektu hau Europako 9 hiritan garatu zen 2013tik 2016ra, eta, amaitutakoan, proiektuan parte hartu zuten hiriek erabakitako Europako STARS Sarea sortu zen. Bat egin nahi duten hiri guztientzat zabalik dagoen sarea da.



BIZKAIAN...

Bizkaian, gero eta udalerrri gehiagok egiten dute eskola-bideen aldeko apustua. Hona hemen zenbait adibide:

OROZKO

eskola-bidea ©
okupatzen duten
autoentzako
"iñun moralak"
daude.



BERRIZ ©

Berrizeko 6 urtetik
gorako ikasleak elka-
rrekin eta oinez joaten
dira ikastetxera.

BILBO ©

Eskolara, bizikletaz
edo oinez Bilbon.



LEIOA ©

"Bizibideak,
lagunekaz
eskolara"
proiektuak
26.000 metroko
autonomia
zehazten du
ikasleentzat.



GERNIKA- LUMO ©

Ikastetxe guztietako
ikasleek, familiek
eta irakasleek
Eskola Bidea
proiektuarekin bat
egin dute.



GALDAKAO

© Udalerriko zenbait
ikastetxetako
ikasleak egunero
oinbusean joaten
dira eskolara.



ERMUA ©

Ermuak
Iraunkortasunaren
Conama Saria
irabazi du
eskola-bidearen
proiektuari esker.

i

GEHIAGO JAKITEKO

- ✦ Eskolabidea. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.
- ✦ Eskolabidea. Eskola Bideetarako Tokiko Proiektuak Garatzeko Gidaliburua. Eusko Jaurlaritza.
- ✦ Ezarpenerako gidaliburua: eskola-bideetarako proiektuak. Bilboko Udala.
- ✦ Mugi zaitez! Mugikortasun Iraunkorra lantzeko unitate didaktikoa.
- ✦ Camí escolar, espai amic.
- ✦ Eskola Bide Segurua.
- ✦ Eskola-bidea, urratsez urrats.
- ✦ Mugikortasuna eta Umeak.
- ✦ Eskola Bideen Gidaliburu Laburra.
- ✦ Eskola Bide Seguruak Ezartzeko Eskuliburua. Granadako Diputazioa.
- ✦ Madril oinez, eskolarako bide segurua.
- ✦ Eskola-bideko aztarnen atzetik.
- ✦ L'ESO va que vola. Amics de la bici.
- ✦ Bizikletaz eskolara.
- ✦ Safe Routes to school.
- ✦ STARS proiektua.
- ✦ Life Cycle.
- ✦ Saveway2school.
- ✦ I Walk to School.
- ✦ La città dei Bambini.



www.freepik.es